

# Nikolas Contreras Goikoetxea

**D** maila • 2 aipamena

Ataundarra naiz eta 12 urte ditut. Nire zaletasunak esku pilota eta xakea dira. Bertsoak idaztea ere gustokoa dut.



Doinua: Badira hiru aste

## MUNDU HONETAN BERRI TXAR GEHIEGI DAGO

1-

Bonbatzar batek eztanda egin du Caracastik barrena hogeit hildako Yemengo gudan horixe dator hurrena Txinan ordea historiako tsunamirik handiena eguraldiak kontatzen digu albisterik alaiena.

2-

Aurten fisika Nobel saria ataundarrek jaso dute minbiziaren txerto berri bat saldu behar dute merke albiste hauek bezalakoak ditugu guztiok maite albistegi on bat egitea kostatzen al da hainbeste?

3-

Albiste txarrak ederrak dira ikusle asko lortzeko eta horixe funtsezkoa da dirua irabazteko enpresa hauek jada daukate prentsa guztia menpeko gauza askotan bezala hemen dirua dago tarteko.

4-

Berri alaiak izateko nik emango dut aurpegia ikusiko da ea baduten aldatzeko ausardia albiste hauek esaten dute tristea dela bizia diru nahikoa duzue eta aldatu albistegia.